



### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Anne Franken egunkaria**  
Egilea / Autor: Anne Frank  
Saila / Colección: Oroimenean barrena, 8  
ISBN / EAN: 978-84-9746-816-9  
Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)  
Orri kopurua / N° páginas: 336  
Formatua / Formato: 13 x 22 cm

### Egilea / El autor

**Anneliese Marie (Anne) Frank** (Frankfurt, 1929ko ekainaren 12a - Bergen-Belsen, 1945eko martxoa) alemaniar judu bat zen, idatzi zuen egunkaria dela-eta ezaguna Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi ezkutuan zela.

Gerra garaian Amsterdameraino iritsi zen familiarekin batera, naziengandik ihes egin nahian. Familiarekin ezkutatu zen zuloan egunkari bat idatzi zuen. Hilabete batzuen ondoren ordea, familia osoa atxilotu zuten eta alemaniar kontzentrazio esparrutan banatu. 1945eko otsaila edo martxoa izango zen tifusak harrapatu eta neska hil zenean.

### Lana / La obra

*“Gauza guztiak esan ahal izango dizkizut, nik uste, orain arte inori ez bezala, eta laguntza handia emango didazula espero dut”* esanez hasi zuen bere egunkaria, 1942ko ekainaren hamabian, Anne Frank neskatok. Hamahiru urte bete berriak. Adin berezia, zaila, nahaspilatua. Etorkizunari dena eskatzen zaion adina, iraganaren zati handi bat arbuiatzen dena, maitasuna eta abentura eskatzen direna, desirak oraindik izen zehatzik ez mugarik ez duena. Halako gaztetxo horrek gela gutxi batzuetan ezkutatu beharra badu, eta bere harremanak etxekeongana eta beste ezkutatu gutxi batzuegana urritzen bazaizkio, bi aukera baizik ez ditu: erotu ala idatzi.

Eta Anne Frankek idatzi egingo du. Arin eta bizitasun handiz, barrena hunkitzen digun zintzotasun, umore eta zorroztasun batez. Bizitza honetan gehien kostatzen dena nahi du: nor den eta zer gertatzen zaion jakin. Galera larriak, bat nerabea denean. Askatasuna nahi du, askatasun fisikoa ezin bada, pentsamenduarena: pertsona nagusiek –kritikatzen du– barre egiten diote; nahasmendua sentitzen du, larritasuna, eta kexu da. Baina maitasuna ere badu. Maite du Peter eta maite du bizitza. Bila ari da, gogoetan. Baina badaki jostatzen ere. Bizi da, hitz batean. Lau paretaren artean gauza asko gerta daitezke, eta neska gazte batean bihotzean mila historia. Kanpoan, Gestapo, esespena, izuaren mendea.

Ez dago suspenserik, gazte literatura deitu ohi denean ohi den bezala. Ondo ezagutzen dugu, tamalez, protagonistaren akabera makurra. Geldiro irakurtzen dugu, beraz, xehetasun guztiak arakaturik, protagonistaren bizitza geuretzat emozioak betetzen gaituen arte.

Anneren ahotsak, tragediaren erdian bizipoza kantatzeko gaitasunaz, betirako iraungo duen oihartzuna baitu.

Tragediaren beste aldean, izan ere, bizitza baitago bizi-bizi.

ISBN: 978-84-9746-816-9



9 788497 468169

[www.erein.com](http://www.erein.com)

  
erein